



2011ko ekainaren 9a

HERRIKO KONTSEILUko
kide zirezten jaun-andereak

Erref.: JMB/MHM- 427/2011

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA
2011ko APIRILAREN 28an, OSTEGUNA, 18:00etan
HERRIKO ETXEAN IRAGAN BILKURA

BERTARATUAK: Guy POULOU Auzapez Jn., LOLOM Jn., DUBARBIER And., BERLAN Jn., DOSPITAL And., LALANNE Jn., WATIER DE CAUPENNE And., MACHENAUD Jn., MINTEGUI And., HIRIART Jn., IDIARTEGARAY PUYOU And., URBISTONDOY Jn., ANCIZAR And., IBARLOZA Jn., CAPDEVILLE And., COSTE Jn., GOUAILLARDET Jn., ANIDO Jn., HARDOY And., ORIVE And., GOURAUD Jn., BAZERQUE And., DUGUET And., TAPIA And.

AHALORDEAK: GLOAGUEN Andereak HIRIART Jaunari eman dio, UGARTEMENDIA Andereak DUBARBIER Andereari, MINTEGUI Jaunak TAPIA Andereari.

BARKATUAK: ERRANDONEA Jn., MADRID Jn.

2011ko apirilaren 19ko deialdia.

Guy POULOU Auzapez Jaunaren lehendakaritzapean.

GAI ZERRENDA

I/ Gai Orokorrak

- 1/ Herriko Kontseiluak Auzapezari eman ordezkaritza (Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L 2122-22 artikulua),
- 2/ 2011ko urtarrilaren 12ko eta martxoaren 15eko Herriko Kontseiluen bildumen onespena,
- 3/ Zokoako Gotorlekuaren saltzea: Lehentasun Eskubidearen Erabilpena,
- 4/ «Les Jardins du Golf»: Lankidetzeta Hitzarmena.

II/ Finantza Gaiak

- 1/ Emaizten esleitzea: Aitzinkontu orokorra,
- 2/ Zerga tasen finkatzea,
- 3/ Hastapeneko aitzinkontuen onespina,
- 4/ Herriko oihanaren antolaketa: Finantzamendu eskaera,
- 5/ Kreditu-idekitzea.

III/ Herriko Langilegoa

- 1/ Gaualdiak dituzten egonaldietan haurren zainketari doakion herriko langileen ordainketa,
- 2/ Sasoiko langilegoaren kontratatzea 2011. urterako.

IV/ Zerbitzu Teknikoak

- 1/ Landa-elektifikazioa – «Génie Civil France Télécom 2010» Programa – Proiektuaren eta herriko etxeko finantzamendu partearen onspina – 09FT086 kasua
- 2/ Landa-elektifikazioa – «Article 8 (Bayonne) 2010» Programa – Proiektuaren eta herriko etxeko finantzamendu partearen onspina – 08EF103 kasua
- 3/ Landa-elektifikazioa – «Argiztapen publikoa (SDEPA) – Communes urbaines (Souterrain) 2009» Programa – Proiektuaren eta herriko etxeko finantzamendu partearen onspina – 08EP205 kasua
- 4/ Landa-elektifikazioa – «Kableen ezartzea France Télécom 2010 » Programa – Proiektuaren eta Herriko Etxeko finantzamendu partearen onspina – 09FT087 kasua.

Pierre BERLAN Jauna bilkura idazkari gisa izendatua da.

I/ Gai Orokorrak

1) Herriko Kontseiluak Auzapezari eman ordezkaritza (Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L 2122-22 artikulua)

Ordezkaritza honek honako hitzarmenak izenpetzea ahalbidetu du:

Zokoan kokatu lursail batzu ezegonkortasunez eta dohainik esku ezartzeko, hitzarmen bat Donibane Lohizune – Ziburuko Badiako Herriarte Sindikatuarekin, 2011ko urtarrilaren 10ean gauzatua;

Bordagaineko Dorrearen baitan lokal batzu urririk esku ezartzeko hitzarmen bat Ziburuko Turismo Bulegoarekin, 2011ko otsailaren 18an gauzatua.

2) 2011ko urtarrilaren 12ko eta martxoaren 15eko Herriko Kontseiluen bildumen onespena

Herriko Kontseiluak 2011ko urtarrilaren 12ko eta martxoaren 15eko Herriko Kontseiluko biltzarren bildumak aho batez onestu ditu, DUGUET Andreak egin bi aldaketa eskaera aintzat harturik.

3) Zokoako Gotorlekuaren saltzea: Lehentasun Eskubidearen Erabilpena

Txostengilea: Auzapez Jauna

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideeri jakinarazi die Finantza Publikoen Administratzaile Andreak 2011ko martxoaren 8an gutun bat helarazi diola, Estatuak Zokoako Gotorlekua 700.000 eurotan saltzeko xede duela jakinarazteko, hau da France Domaine zerbitzuen balioespenen arabera.

Auzapez Jaunak gaineratu du Hirigintzako Kodeko L 240-1 artikulutik L 240-3 artikulura arteko xedapenen arabera, Ziburuko Herriko Etxeak ontasun honen eskuratzeko lehentasun eskubidea duela.

Auzapez Jaunak zehaztu du, denen artean adosturik, Ziburuko Herriko Etxeak eta Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoak nahi luketela ondare historikoa eta Donibane Lohizune eta Ziburuko badiaren toki sinbolikoa den ontasun hau Eremu Publikoaren baitan atxiki. Xede horretan, Euskal Herri Hegoaldeko Elkargoak Zokoako Gotorlekua erosi ahalko luke Ziburuko Herriko Etxeak bere lehentasun eskubidea uzten balio.

Azalpen honen jarraian eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- **ERABAKI DU** Ziburuko Herriko Etxeak duen ontasun honetaz jabetzeko lehentasun eskubidea Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoaren esku uztea, 700.000 eurotan, gune sinboliko hau Eremu Publikoaren baitan geldidarin.

Oharrak:

DUGUET Anderearen adierazpena:

«Ohar zenbaitzu:

- 1) *Lehentasun eskubidearen Historiaz hasiz: 2003ko martxoaren 26an, Ziburuko Herriko Kontseiluak “eraikin” honen jabetzearen printzipioa erabaki zuen. 2006ko uztailaren 18an, lehentasun eskubide hau Donibane Lohizune – Ziburuko Badiako Herriarte Sindikatuaren esku utzi zinen.
Ohartzen gira garaian gauzak erabide onean egin zirela. Gaur egun, Herri Elkargoak ziburutar hautetsiak baino lehen deliberatzen du... eta prentsak bere zutabeetan aipatu ondotik. Ez da dudarik ziburutarrek atseginez hartuko dutela azken mamu gorria izatea.*
- 2) *Egungo deliberoaren baliozkotasunaz arranguratu naiz eskubide hau, gorago erraten nuen bezala, bere printzipioz, jadanik beste baten esku utzia izan baita. Prozedura berri batean ginela berrestua izan zait, gotorlekua prezio desberdinean salgai denez desmarta berri batean sartua baita.
Auzapez Jauna, prefetarekin bildu zira 2011ko martxoaren 4ean Gotorlekuaren erosteko lehentasun eskubidea beste baten esku uzteari buruz hitzegiteko.
Erran nahi baitu bazenekiela martxoaren 15ean Herriko Kontseiluan lehentasun eskubidea Herri Elkargoaren esku utzia izanen zela eta ez zenuen ezta aipatu ere.
Beraz, Auzapez Jauna, erran dezakegu elkarren artean duguna fedea dela.
Dagokidanez, zuri ari natzazula eta erantzun gabe naizelarik, fede ONA da...
Azkenean, fede TXARRA baizik ez zaizu gelditzen.*
- 3) *Auzapez Jauna, gotorlekuko gakoak Herri Elkargoaren esku uztea eskatzen diguzu, baina oposizioko hautetsi gisa eta beraz ziburutarren ordezkari gisa, ez girenez bertan ordezkatuak ez dugu erabakitzeko ahalmenik.
Behar gorria aipatzen da, alta 2010eko ekainean jadanik aipatzen zinen prentsan nahi zinuela Herri Elkargoak hari doakion erantzunkizuna bere gain hartzea. Erran genezake bederen behar gorria ongi aurreikusia dela... Hautetsi guziak ihesbiderik gabe utziak dira (eta ez bakarrik Ziburukoak) nahiz hau guzia gordezka jakina izan, Donibane Lohizunek ezin duenetik eta ez duenetik gehiago nahi herriarte sindikatuaren baitan aitzinkontu hau beregain hartu nahi.
Argi da salmenta hau beste norbaiten esku baizik ez dugula uzten ahal, finantzen aldetik Ziburuk ezin duelako bere gain hartu.
Esleitzeari doakionez, ez da oraindik iragarria baina bai azkarki aztertua... Hortaz ez dugu dudarik. Gure jarrera honako hau da: gure arbasoen eskutik jaso dugun eraikin hau eta bere geroko kudeaketa Eremu Publikoan gelditzea nahi dugu.
Herri Elkargoko lehendakariaren erranen arabera, aurreikusia den esleitzea kirol-portuaren ezartzeari lotua da zeinaren kontra tematsuki buru egiten dugun.
Hori dela eta, eskatzen dugu berehala herritarrei tokiko ekimen erreferendum bat absolutuki proposatua izan behar zaiela portu proiektu honi buruz. Edozein erabaki hartu baino lehen egiazko elkar aditze bat hasi behar da biztanleekin. Deloitte bulegoaren proiektua erabat neurritz kanpoko da eta mezenasarenak (Lafarge zementuak) erabilpen publiko oro baztertzen du.»*

Auzapez Jaunak oroitarazi du Herriko Etxeak bere lehentasun eskubidea 2007. urtean utzi ziola Badiako Herriarte Sindikatuari, baina gaur egun prozedura berri bat da eta lehentasun eskubide berri bat emana zaio Herriko Etxeari.

Zehaztu du Herri Elkargoak ezin zuela jarrerarik hartu Gotorlekuaren prezioa ezagutu gabe eta Estatuaren zerbitzuek azken hau 2011ko martxoaren 8an baizik ez dutela jakinarazi.

Auzapez Jaunak azaldu du alabaina lurraldeko ekonomiari buruzko azterketak eginak izan direla Herri Elkargoarentzat eta horietan Zokoako badia eta Gotorlekua aipatzen direla baita kirol-portu baten balizko eraketa, hau sektorearentzat onura ekonomiko bat bezala aurkeztua.

Gotorlekuaz interesatuak agertu diren pertsona guzietan erantzun izan zaie eraikin honen % 50 Eremu Publikoan egon behar zela eta deneri idekia izan behar zela. Hondartza ez litzateke inolaz ere pribatizatua izanen eta zirkulazioa Gotorlekuaren bidean debekatua izanen litzateke.

Auzapez Jaunak zehaztu du Herri Elkargoaren erosketa honek Ziburuko Herriko Etxeari eragiketa hortan dirurik ez ateratzea ahalbidetzen diola.

Auzapez Jaunak azaldu du Herri Elkargoko Lehendakariak honakoa baizik ez duela adierazi: kirol-portu bat behar balitz Zokoan, Gotorlekua proiektu honi lotua izan lekioko.

AHO BATEZ ONETSIA

4) «Les Jardins du Golf»: Lankidetzaren Hitzarmena

Txostengilea: Guy LALANNE Jn.

Auzapez Jaunak azaldu die Herriko Kontseiluko kideeri COLEk lankidetzaren hitzarmen baten proiektua helarazi diola errentarako 10 etxebizitza sozialen eraikitzeko «Jardins du Golf» higiezin eragiketaren baitan, Delporte Zubiko karrikan Ziburun.

Proiektu sozial honek 10 etxebizitza aurreikusten ditu honako moldean eratua:

- T2-ko 6 etxebizitza
- T3-ko 4 etxebizitza

Ziburuko Herriak 29.490,36 euro ordainduko lituzke, eragiketaren kostu-prezioaren % 3koaren izenean, honi % 20 kendu beharko zaiolarik, Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoko diru parte-hartzea baita.

Azalpen honen jarraian eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Lankidetzaren hitzarmena aurkeztua den bezala **ONARTU DU** baita finantzatze aitzin-plana ere.
- Auzapez Jaunari hitzarmena aurkeztua izan den bezala izenpetzeko **BAIMENA EMAN DIO**.

Oharrak:

DUGUET Andereari damutzen zaio proiektu honek T1 eta T4 gisakorik ez izatea.

AHO BATEZ ONETSIA

II / Finantza Gaiak

1) Emaitzen esleitzea: Aitzinkontu orokorra

Txostengilea: Claude LOLOM Jauna

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideeri azaldu die M 14 instrukzioaren arabera funtzionamendu saileko emaitza esleitu egin behar dela.

2010eko kontu administratiboak honako emaitzak agerian utzi ditu:

- Inbertsio saila: 1.468.479,29 €-ko ekitaldi defizita
- Inbertsio saila: 122.084,11 €-ko diru-zama gelditzen da, gastuetarako
- Inbertsio saila: 1.210.000,00 €-ko diru-zama gelditzen da, irabazietarako
- Funtzionamendu saila: 1.050.046,64 €-ko ekitaldi soberakina

Auzapez Jaunak funtzionamendu soberakin hau honako gisara esleitzea proposatu du:

- Inbertsio saileko 1068 artikulura (Kapitalizatu funtzionamendu soberakina) 820.141,64 €.
- Funtzionamendu saileko 002 artikulura (Berriz ekarri funtzionamendu soberakina) 229.905,00 €.

Azalpen honen jarraian, 2011ko apirilaren 19ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Emaitzak gain honetan bezala azalduak **ESLEITU DITU**.

DUGUET And., BAZERQUES And., TAPIA And., MINTEGUI Jn. eta GOURAUD Jn. absenitu dira.

ONARTUA

2) Zerga tasen finkatzea

Txostengilea: Claude LOLOM Jauna

2011ko herriko aitzinkontuak 3.219.132 €-ko zerga sartzeak behar dituzenez, Auzapez Jaunak 2011. urterako zerga-tasen finkatzea proposatu du behe honetako taulan bezala azalduak:

Zerga	2010eko zerga-tasa	2010eko benetako zerga oinarriak	2011ko proposatu zerga-tasa	2011ko aurreikusi zerga oinarriak	2011ko igurikatu etekina
Etxebizitza	% 10,41	17.345.801	% 10,59	17.743.000	1.878.984
Lur Eraikia	% 10,84	11.728.706	% 11,03	11.997.000	1.323.269
Lur ez Eraikia	% 23,33	70.880	% 23,74	71.100	16.879
				Orotara	3 219 132

Azalpen honen jarraian, 2011ko apirilaren 19ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- 2011ko ekitaldiaren zerga-tasa gain honetan azaldu bezala **FINKATU DU**.

Oharrak:

DUGUET Anderea:

« Aurten berriz ere, ziburutarrei zuzendu zergen emendatzeei buru egiten diegu. Denek dakigu zerga horiek ez direla zuzenak eta baliabideei ez zaizkiela lotuak. Gainera, haien emendatzea ttipia bada ere, familia behartsuenen kontsumoa apaldu baizik ez dezakete egin»

GOURAUD Jauna zerga-tasen emendatze hau hain ttipia izatea damutzen da.

Auzapez Jaunak atseginez ikusi du GOURAUD Jaunak emendatze hau apalegia deritzola. Zehaztu du Herri Elkargoko lurraldean Etxebizitza-zerga Ziburun, Senperekoarekin batera, apalena dela. Azaldu du ere bitxia atxeman duela Angelukoa % 22 baino handiagoa izatea.

GOURAUD Jaunak zehaztu du *hobe zitekeela ez batere emendatzerik izatea.*

DUGUET And., BAZERQUES And., TAPIA And., MINTEGUI Jn., GOURAUD Jn. absenitu dira.

ONARTUA

MACHENAUD Jaunaren sartzea.

3) Hastapeneko aitzinkontuen onespena,

Txostengilea: CLAUDE LOLOM Jauna

LOLOM Jaunak herriko aitzinkontu gehigarriaren aurkezpenari ekin dio (Sainte-Thérèse eta Gazteria Zerbitzua) bai eta ere aitzinkontu orokorrarenari.

Oharrak:

DUGUET Anderearen adierazpena:

«Auzapez Jn., duela hilabete askoz geroztik finantza batzordean hor ez izatea deitoratzen dugu elkarrizketa ez zaigulako ahalbidetzen. Zure lankideak galdezkatzen ditugu baina erantzuna zure esku dirudi, aldebakarreko eran. Funtzionamendu hau erabat deitoragarria da. Zure axuantek ez dute berezko aitzinkonturik beren ordezkariitzei dagozkien diru-laguntza eskaerentzat. Ohar horiek jadanik egin nizkizun iaz eta berriz helarazten dizkizut.

Funtzionamendu aitzinkontu primitiboari dagokionez, orokorki, ohartzen gira dena emendatzen dela nahiz eta gure eskumenak gutitzen diren.

Ziburuko Herriko **Besta eta Ospakizun aitzinkontua**, Herriko Jendarte Laguntza Zentroa (HJLZ-CCAS) egiturarena erantsiz (35.000 €) eta Gazteria Zerbitzuarena (2.400 €)

127.000 eurotara heldzen da. *Eta badakigu Besta Batzordeari emana zaion aitzinkontuaren parte bat, besta batzuetarako ere erabilia dela.*

Gouraud Jaunak azpimarratzen duen bezala Gazteria saileko aitzinkontua izigarri emendatu da eta eskatzen dugu egitura honek ziburutarren interesak baizik ez ditzala zerbitza.

Diru-sarreraren aldetik,

2011ko Aitzinkontu Orientabide Eztabaida (ANE-DOB) kari egin proposamena berriz egiten dugu, hau da, herriak eskuratzen dituen jabego aldaketen sariak gure etxebizitza sozialentzat erreserbatzea, horiek ez baitira oraindik Hiri Elkartasun eta Berriztapen (HEB-SRU) legearen arabekoak...

Tokiko zerga-tasen emendantzeari dagokionez, aitzinkontuari buruzko lerroa ez dugu bozkatuko, ikus finantza gaien 2. pundua.

Elkargoko elkartasun sariaren aurtengo eskasiari dagokionez, argi dugu sari hau Herri Elkargoaren esku utzi ahalmenekin elkar orekatu behar dela, besteak beste saneamenduaren arloan non indar handiak baitezpadakoak diren.

Galdera bat: Urte hastapenean egin erroldaren emaitzen berri ukan ote dugu? biztanle kopuruaren emendatze bat aipu balute, diru-sarrera berriak eskuratzeko esperantzan izan ginteko arrazoi gehiago emanez tokiko zergen geldialdi bati.

Elkarteei zuzendu diru-laguntzei dagokienez, ez baitzinen batzordeetan bertaratua, jarraipenik gabe utzi dituzun 2 eskaera nahi genituzke aipatu eta horien azterketa berri bat egitea eskatzen dizugu.

Lurra Zain ingurumenarekiko elkartea da. A63 autobidearen zabaltzearen ondotik sortu da inguruko bizilagunen alderdia hartzeko helburuarekin. Karbono dioxidoaren espazialtasunaren azterketak, Ondres-Biriatu tartean, agerian eman du kutsatzaile honen tasa oso azkar bat (bertan hartua izan den batazbestekoa 76 µg/m³-koa da jarraibidea 40µg/m³-koa delarik).

Airaq-ek egin hipotesia baieztatzeko Lurra Zainek bidetik 200 metrotara bigarren azterketa bat proposatzen du airearen kalitatea egiaztatu dadin eta auzoak segurtatuak izan daitezen. Auzapez Jaunari begi oneko jestu bat elkarte honengan ukaitea eskatzen diogu lagin horien kostuaren 7.500 euroetatik 5.000 € bere gain hartuko baititu. Orive Andereak, Ziburuko herriko ingurumena saileko ordezkariak, Lurra Zainen 2010eko abenduko biltzar nagusian parte hartu du (Getariak eta Urruñak jadanik baikorki ihardetsi dute).

Itsas Begia

Elkarte honek diru-laguntza eskaera bat helarazi dizu gure badiako itsas historiari buruzko argitalpen batentzat, horren ordeztan 30 ale emanak izanen direlarik.

Auzapez Jaunak zehaztu du diru-laguntzak behar diren axuanta guzietan aztertutako izan direla. Itsas Begiari dagokionez, Auzapez Jaunak azaldu du elkarte honek Europatik 51.000 €-ko diru-laguntza bat eskuratu duela (4. Ardatza). Gaineratu du itsasontziak Kirol Zelaian izanen direno, Herriko Etxetik ez dela diru-laguntzarik izanen...

Etxebizitzari dagokionez, Auzapez Jaunak zehazten du indar garrantzitsu bat eginga izan dela errenta sozialaren alde Ziburun, 2002tik geroz eraikitze-baimenen emate tauletan ohar gaitzekin bezala.

Zehaztu du bestalde, guretzat Estatutik ez dela gibel egiterik errenta-sozialarekiko B1 eremuan kokatzen girelako.

DUGUET Andereak Auzapez Jaunaren hitzei oharra ematen ditu:

- «*Itsas Begiak ez du diru-laguntzarik eskuratuko Kirol Zelaieko itsasontziak ez direno deseginak*», zehazten dut gai honi buruz nere jarrera ezagutzen duela, gutun bat helarazia izan baizitzaion duela hiru urte pasa eta elkartearen lehendakariarekin harremanetan sartu behar dela.
- «*Itsas Begiak 45.000 €-ko diru-laguntza bat eskuratu berri du*», zehazten dut Euskal Kultur Erakundeak (EKE) duela itsas memoriaren grabaketari lotu proiektu bat eramaten. Diru kopuru hau Arrantzarako Europako Funtsaren (AEF-FEP) IV. Ardatzaren bitartez EKEn emana izan zaio eta Itsas Begiak ez du diru-laguntzarik eskuratu. Gainera, Arrantzen Tokiko Batzordeak du izan nahi proiektu hau AEFren desmartzan sarrarazi. Auzapez Jaunaren hitzei erabat uko egiten diet.

Inbertsioaren hastapeneko aitzinkontuari dagokionez,

Iaz, obratze oso guti izan ditugu eta aurten jakinmindurik, gauzatzeen beha gira.

4. orrialdean itsaslabarrei buruz: 2011ko martxoaren 15ean Aitzinkontu Orientabide

Eztabaidaren kari aurkeztu zenarekin 40.000 €-ko desberdintasuna azpimarratzen dugu.

6. orrialdean hilerriari buruz: diru kopuru hau jadanik aipu izan zen iaz (deusez gauzatua)

7. orrialdean Herriko Etxeko obrei buruz: 100.000 € esleituak izan zaizkie eta espero dugu obra horiek bururaino eramana izanen direla, herriko langilegoaren lan baldintzak duela zenbait hilabetez geroztik ez direlako egokiak.

8. orrialdean Marinela eskolari buruz: zertan da espertaren bilduma?

10. orrialdean: zein izanen ote da Serorategiaren esleitzea?

14. orrialdean: Bide berdea: Soubelet bideari dagokionez, noiz igurika ditzakegu obrak?

Soubelet familiak dozierraren jarraipena Garra Anderearen gain utzi dio. Garra Andereari gutun bat helaraz ote diezaiokezu jakinean atxikia izan dadin?

16. orrialdean: Okineta; antolaketa hau zehazki zertan ote da?

18. orrialdean: Glycines etxe pareko jolasgunea: zer aurreikusten duzu gune hortan?

Auzapez Jaunak eztabaida zerratu du honako xehetasunak ekarriz:

- Itsaslabarrak: 30.000 euro aurreikusiak dira obralaritzaren finantzamendurako nahiz eta 100.000 euro aurreikusiak ziren kreditu-irekieraren laurdena gisa. Hori aitzinkontuaren egokitze bat da eragiketa horren aurreikuspenaren errealitatea kontuan hartzeko.
- Hilerriak: agertzen diren 15.000 euroak, iazkoak dira, eragiketa ezenez abiatua ez ziren berriz ekarriak izanak.

- Eskolako eraikinak: Auzapez Jaunak zehaztu du Herriko abokatuari manatu diola auzitegian eskatzea espertak bere emaitzak ahal bezain fite jakinaraz zitzan.
- Eraikin publikoak GOURAUD Jaunak serorategiaren esleitzeari buruz galdezkatu du. Auzapez Jaunak azaldu du turismo bulegoko langela bat bai eta elizarenak diren altzariak ere (suerpelizak, kalizak...), orain arte Denak Bateanen kokaturik, bertara lekualdatuko direla.
- Jolasgunea: Auzapez Jaunak zehazten du Glycines jolasgunea ez dela berriztatua izanen. Berdegune berri bat eraikia izanen da, jarlekuekin eta sagarrondoak landatuak izanen dira, Konpostelako Donejakueko Adixkideen Elkarteak nahi zuen bezala.

Sainte-Thérèse aitzinkontua: DUGUET And., BAZERQUES And., TAPIA And., MINTEGUI Jn., GOURAUD Jn. absenitu dira.

Gazteria Saileko Aitzinkontua: DUGUET And., BAZERQUES And., TAPIA And., MINTEGUI Jn., GOURAUD Jn. absenitu dira.

Aitzinkontu Orokorra:

- Funtzionamendu saila: DUGUET And., BAZERQUES And., TAPIA And., MINTEGUI Jn., GOURAUD Jn. 7311. artikuluaen kontra bozkatu dute eta sailaren gaineratekoarentzat absenitu dira,
- Inbertsio Saila: DUGUET And., BAZERQUES And., TAPIA And., MINTEGUI Jn., GOURAUD Jn. absenitu dira.

ONESTUA

HARDOY And. eta COSTE Jn. biltzarretik ateratzen dira.

4) Herriko oihanaren antolaketa: Finantzamendu eskaera

Txostengilea: Claude LOLOM Jauna

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideeri oroitarazi die 2006ko uztailearen 18ko deliberoaren arabera, Herriko Kontseiluak Oihanen Bulego Nazionalak (OBN-ONF) eratu diagnostikoa eta antolaketarako dokumentua onestu zituela. Azken hau oihanari doazkion kudeaketa legeak finkatzen ditu, 73,37 hektareako eremu batendako eta 15 urteko epealdi batendako 2006tik 2020ra.

Auzapez Jaunak zehaztu du, 2011. urterako, OBN-ONFek BEZik gabeko 11.679,85 €-ko oihan antolaketa obra aitzinkontu bat helarazi diola.

Obra horiek honako laguntza hauek eskura ditzakete:

- «Euskal Herri Hegoaldeko» Herri Elkargoaren lehiaketa funtsa,
- eta Eskualde Kontseiluko eta Kontseilu Orokorreko laguntzak

Azalpen honen jarraian, 2011ko apirilaren 19ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- 2011. urterako oihan antolaketa obrak BEZik gabeko 11.679,85 €-tan **FINKATU DITU**,

- Auzapez Jaunak **BAIMENDU DU** «Euskal Herri Hegoaldeko» Herri Elkargoari, Kontseilu Orokorrari eta Eskualdeko Kontseilurari laguntza handienak eskatzera, 2011. urterako BEZik gabeko 11.679,85 €-ko obra kastuen arabera.

AHO BATEZ ONETSIA

5) Kreditu-idekitzea

Txostengilea: Claude LOLOM Jauna

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideeri azaldu die, aitzineko urteetan bezala, Ziburuko Herriak diruzaintzarako kreditu-idekitze bat lor dezakeela eta Crédit Agricole-ren eskaintza atxikia izan daitekeela.

Kreditu-idekitze honen baldintza nagusiak honakoak dira:

Zenbatekoa: 450.000 €

Dozier gastuak: 200 €

Interes tasa: Euribor 3 hilabete + % 0,80

Ez erabilpenaren gastuak: Ezerez

Azalpen honen jarraian, 2011ko apirilaren 19ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Crédit Agricole-n kreditu-idekitze bat kontratatzea **ERABAKI DU**, gain honetan azaldu baldintzen arabera.

AHO BATEZ ONETSIA

III / Herriko Langilegoa

1) Gaualdiak dituzten egonaldietan haurren zainketari doakion Herriko langileen ordainketa

Txostengilea: Claude LOLOM Jauna

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die Aterberik Gabeko Aisialdi Zentroaren eta Gazte Gunearen funtzionamendu onarentzat eta indarrean den kuota arduradunei buruzko legedia errespetatua izan dadin, urtero 70 animatzaile inguru kontratatu behar direla.

Animatzaile horiek haurren zaintzearen eta animazioaren arduradunak dira eskolako bakantzetan eta asteazkenetan. Animatzaileak lanaldika 9 ordu araberako lan denbora bezala ordainduak dira, horri egonaldi eta bilan prestaketa orduak erantsi behar zaizkio. Bestalde komeni da zehaztea forfeta-oinarri bat baimentzen duen dispositibo berezi batean sartzan direla. Ondorioz, denbora oso batek maila bereko langile tituludun edo ez tituluduna baino lansari handiagoa irabaziko du (hilabete sari garbiarekiko, 200 eta 290 € ingururen arteko desberdintasuna).

Iaz geroztik, egonaldi batzuk gaualdiekin antolatuak dira. Ondorioz, komeni da langilego desberdinen ordainketa aldatzea.

Epe mugatu baterako hartua eta bolondresa ez den langilegoari dagokionez, Auzapez Jaunak proposatu du, egonaldien erakargarritasuna aintzat harturik, benetazko 9 lan-orduei dagokien ordainketan, ohiko lan denboratik haratago egiten diren orduak integratzea, besteak beste gaudien denboran egiten direnak.

Langilego tituludun iraunkorrari dagokionez, honek dituen diplomak eta erantzukizunak kontuan harturik, Auzapez Jaunak gaudi bakoitz 5 orduko forfeta plantan ezartzea proposatu du.

Azalpen honen jarraian, 2011ko apirilaren 19ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Benetazko 9 lan-orduei dagokien ordainketan ohiko lan denboratik haratago egiten diren orduak, besteak beste gaudietan egiten direnak, integratzea **ERABAKI DU**.
- Gaudika 5 orduko forfeta baten plantan ezartzea **ERABAKI DU** kanpaldi eta egonaldien ardura duen lanaldi osoko langilego tituludunarentzat.

Oharrak:

DUGUET Anderea:

«Pareko Batzorde Teknikoa kontsultatua izan ote da gai honi buruz?»

Ezetz erantzun izan zaio, banakako erabakiak direlako.

AHO BATEZ ONETSIA

2) Sasoiko langilegoaren kontratatzea 2011. urterako

Txostengilea: Claude LOLOM Jauna

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die, udako sasoinak, turisten etortzearekin batera, herriko zerbitzu eskaera garrantzitsuagoa dakarrela. Aktibitate handitze honi aurre egiteko herriko langilegoa indartzea komeni da ondorioz.

65 pertsona ingururi (lizeoko eta unibertsitateko ikasleak eta enplegu eskatzaileak gehienbat) sasoineko kontratu bat proposatua izanen zaie, ekainetik irailera, honako zerbitzuetan:

- Gazteria Zerbitzua: Aterberik Gabeko Aisialdi Zentroa, Gazte Gunea
- Handiplage
- Zentro Teknikoa: Berdeguneak, hondartzen garbiketa, hiriko garbitasuna
- Herriko polizia: ordaindu beharreko aparkatzea – Zokoako aparkalekuaren zaintza
- Donibane Kluba
- Liburutegia
- Tokiko zergen fitxategiaren eguneraketa Biarritzeko Zerga Gunean

Ondorioz Auzapez Jaunak herriko zerbitzu desberdinetarako sasoiarien kontratatzea proposatu du gain honetan azaldu bezala.

Azalpen honen jarraian, 2011ko apirilaren 19ko Finantza eta Herriko Langilegoaren Batzordearen irizpena hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Gain honetan azaldu bezala sasoilarien kontratatzea **ERABAKI DU**.

AHO BATEZ ONETSIA

IV – Zerbitzu Teknikoak

1) Landa-elektifikazioa – «Génie Civil France Télécom 2010» Programa – Proiektuaren eta Herriko Etxeko finantzamendu partearen onespena – 09FT086 gaia

Txostengilea: Auzapez Jauna

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Energia Sindikatuari Ingeniaritza Zibilari honako obra estudioari ekitea: sareen lurperatzeak Evariste Baignol karrikan eta Evariste Baignol karrixkan (lotu C/2010 08EF103).

Departamenduko Energia Sindikatuko Lehendakari Andereak ETDE enpresaren gain utzi obra-kostu estimazioaren berri eman dio Herriari.

Auzapez Jaunak zehaztu du obra horien idazpena egingen dela «Génie Civil France Télécom 2010» Landa-elektifikazio Programaren baitan. Herriko Kontseiluari gastuaren zenbatekoa onestea eta obra horien finantzamendua bozkatzea proposatzen dio.

Azalpen honen jarraian eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Gain honetan aipatu obren gauzatzea **ERABAKI DU**,
 - Obra horien gauzatzea Departamenduko Energia Sindikatuaren **GAIN UTZI DU**,
 - Obren eta egin gastuen zenbatekoak **ONESTU DITU**, honako eran osatua:
 - Obren zenbatekoa BEZ barne 51.838,46 €
 - Obragintza laguntza, obralaritza eta ezustekoak 5.183,85 €
 - SDEPAren kudeaketa gastuak 2.167,16 €
-
- OROTARA 59.189,47 €

-	Eragiketaren finantzamendu aitzin-plana ONESTU DU , honako eran osatua:	
•	France Telecomen parte-hartzea	2.333,00 €
•	Herriaren parte-hartzea obretan funtsa librean finantzatzekoa	54.689,31 €
•	Herriaren parte-hartzea kudeaketa gastuetan (funtsa librean finantzatzekoa)	2.167,16 €
		59.189,47 €
	OROTARA	59.189,47 €

Herriaren behin betiko parte-hartzea obren zenbaketaren ondotik finkatua izanen da

- Delibero hau legaltasun kontrolari **ESKUALDATU DIO**.

AHO BATEZ ONETSIA

2) **Landa-elektifikazioa – «Article 8 (Bayonne) 2010» Programa – Proiektuaren eta Herriko Etxeko finantzamendu partearen onespina – 08EF103 gaia**

Txostengilea: Auzapez Jauna

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Energia Sindikatuari eskatu diola honako obren estudioari ekitea: Sareen lurperatzea Evariste Baignol karrikan eta Evariste Baignol karrixkan.

Departamenduko Energia Sindikatuko Lehendakari Andereak ETDE enpresaren gain utzi obra-kostu estimazioaren berri eman dio Herriari.

Auzapez Jaunak zehaztu du obra horien idazpena egingen dela «Article 8 (Bayonne) 2010 » Landa-elektifikazio Programaren baitan. Herriko Kontseiluari gastuaren zenbatekoa onestea eta obren finantzamendua bozkatzea proposatu dio.

Azalpen honen jarraian eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Gain honetan aipatu obren gauzatzea **ERABAKI DU**,
- Obra horien gauzatzea Departamenduko Energia Sindikatuaren **GAIN UTZI DU**,

- Obren eta gauzatzeko diren gastuen zenbatekoa **ONESTU DU**, honako eran osatua:
 - Obren zenbatekoa BEZ barne 199.310,08 €
 - SPS koordinatzailea 334,88 €
 - Obragintza laguntza, obralaritza eta ezustekoak 19.931,01 €
 - SDEPAren kudeaketa gastuak 7.500,00 €
-
- OROTARA 227.075,97 €

- Eragiketaren finantzamendu aitzin-plana **ONESTU DU**, honako eran osatua:
 - EDFen parte-hartzea 30.846,70 €
(gastuak diruz lagunduak, honako mugarekin: 77.116,76 € BEZik gabe)
 - SDEPAren parte-hartzea 29.103,87 €
(gastuak diruz lagunduak, honako mugarekin: 77.116,76 € BEZik gabe)
 - SDEPAk aitzin-finantzatu BEZa 35.984,02 €
 - Herriaren parte-hartzea obretan, funtsa librean finantzatzekoa 123.641,38 €
 - Herriaren parte-hartzea gestio gastuetan, funtsa librean finantzatzekoa 7.500,00 €
-
- OROTARA 227.075,97 €

Herriaren behin betiko parte-hartzea obren zenbaketaren ondotik finkatua izanen da

- Herriko eremu pribatuan gerta daitekeen zortasuna urririk **ONARTU DU**,
- Delibero hau legaltasun ikuskaritzari **ESKUALDATU DIO**.

AHO BATEZ ONETSIA

3) Landa-elektifikazioa – «Argizatpen publikoa (SDEPA) – Communes urbaines (Souterrain) 2009» Programa – Proiektuaren eta Herriko Etxeko finantzamendu partearen onespena – 08EP205 gaia

Txostengilea: Auzapez Jauna

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Energia Sindikatuari eskatu diola honako obren estudioari ekitea: Lurperatu Argiteria Publikoa Evariste Baignol karrikan eta Evariste Baignol karrixkan (8/2010 artikuluari lotua).

Departamenduko Energia Sindikatuko Lehendakari Andreak ETDE enpresaren gain utzi obra-kostu estimazioaren berri eman dio Herriari.

Auzapez Jaunak zehaztu du obra horien idazpena egingen dela « Argizatpen publikoa (SDEPA) – Communes urbaines (Souterrain) 2009 » Landa-elektifikazio Programaren baitan. Herriko Kontseiluari gastuaren zenbatekoa onestea eta obren finantzamendua bozkatzeari proposatzen dio.

Azalpen honen jarraian eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Gain honetan aipatu obren gauzatzea **ERABAKI DU**,
 - Obra horien gauzatzea Departamenduko Energia Sindikatuaren **GAIN UTZI DU**,
 - Obren eta gauzatzeko diren gastuen zenbatekoa **ONESTU DU**, honako eran osatua:
 - Obren zenbatekoa BEZ barne 87.926,45 €
 - Obragintza laguntza, obralaritza eta ezustekoak 8.792,65 €
 - SDEPAren kudeaketa gastuak 3.675,86 €
- _____
OROTARA 100.394,96 €
- Eragiketaren finantzamendu aitzin-plana **ONESTU DU**, honako eran osatua:
 - SDEPAren parte-hartzea 7.126,99 €
(gastuak diruz lagunduak, honako mugarekin: 28.507,96 € BEZik gabe)
 - SDEPAk aitzin-finantzatu BEZa 15.850,29 €
 - Herriaren parte-hartzea obretan, funtsa librean finantzatzekoa 73.741,82 €
 - Herriaren parte-hartzea kudeaketa gastuetan, 3.675,86 €
funtsa librean finantzatzekoa
- _____
OROTARA 100.394,96 €

Herriaren behin betiko parte-hartzea obren zenbaketaren ondotik finkatua izanen da

- Delibero hau legaltasun kontrolari **ESKUALDATU DIO**.

AHO BATEZ ONETSIA

- 4) **Landa-elektifikazioa – «Kableen ezartzea France Télécom 2010 » Programa –
Proiektuaren eta Herriko Etxeko finantzamendu partearen onespina – 09FT087 gaia**

Txostengilea: Auzapez Jauna

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Energia Sindikatuari eskatu diola, egitura honen eta telekomunikazio operadorearen arteko hitzarmenaren baldintzen arabera, honako eragiketari lotu estudioen eta telefono kable ezartzeen kostua helaraztea: Kableen ezartzea sareen lurperatzeak, Evariste Baignol karrika eta Evariste Baignol karrিকা (C/2010 08EF103 lotua).

Departamenduko Energia Sindikatuko Lehendakari Andreak telekomunikazio operadorearen gain utzi obra-kostu estimazioaren berri eman dio Herriari.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluari gastuaren zenbatekoa onestea eta obren finantzamendua bozkatzea proposatu dio.

Azalpen honen jarraian eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Gain honetan aipatu obren gauzatzea **ERABAKI DU**,
- Obra horien gauzatzea Departamenduko Energia Sindikatuaren **GAIN UTZI DU**,
- Obren eta gauzatzeko diren gastuen zenbatekoa **ONESTU DU**, honako eran osatua:
 - Obren zenbatekoa BEZik gabe 3.400,00 €
 - Kudeaketa gastuak eta ezustekoak 0,00 €

OROTARA 3.400,00 €
- Eragiketaren finantzamendu aitzin-plana **ONESTU DU**, honako eran osatua:
 - France TELECOMen diru-laguntza 2.788,00 €
 - Herriaren parte-hartzea 612,00 €

OROTARA 3.400,00 €
- Delibero hau legaltasun kontrolari **ESKUALDATU DIO**.

AHO BATEZ ONETSIA

Bilkura 20:15etan amaitu da.